

Euskal AEko gizarte-babeseko guztizko gastua %7,5 igo zen 2005ean

Biztanle bakoitzeko guztizko gastua 5.156 eurokoa izan zen 2005ean, hots, aurreko urtekoa baino %7,1 handiagoa izan zen


Eustaten datuen arabera, Euskal AEn gizarte-babeseko baliabideetan 10.894 milioi euro erabili ziren 2005ean, hots, aurreko urtean baino %7,5 gehiago.

Gizarte-babeseko guztizko gastu horretatik, gizarte-prestazioetan 10.646 milioi euro erabili ziren 2005ean, hau da, gastuaren %97,8 (gainerakoa kudeaketa-gastuei dagokie), eta gastu hori etengabe hazi da 1995. urteaz geroztik (urte hori izan da Euskal AEko gizarte-babesaren kontuko datuak ditugun lehen urtea). 2004ko ekitaldiaren aldean, hazkundera %7,5 izan zen.

Gizarte-prestazioetako gastua zortzi funtziotan banatzen da, eta funtzio horietatik Zahartzaroa eta Gaixotasuna/Osasun-laguntza nabarmendu dira.

Zahartzaroaren funtzioko gastuan, pentsioez gain beste prestazio batzuk ere sartzen dira, hala nola etxeko laguntza edota zaharrei ostatu emateko zerbitzua. Gastu hori 4.605 milioi eurokoa izan zen 2004an eta gizarte-prestazio guztien %46,5 izan zen. 65 urte edo gehiagoko lagun bakoitzeko, gastua 11.949 euro izan zen 2004an. Horrek %6,3ko aldakuntza ekarri zuen 2003. urtearekin alderatuz gero.

1. grafikoa. Gizarte-prestazioetako gastuaren banaketa, funtzioen arabera. 2004



Iturria: Eustat

Gaixotasuna/Osasun-laguntza funtzioak Euskal AEko biztanle bakoitzeko prestazioen %7,3ko hazkundera ekarri du, eta hori gizarte-prestazio guztien %30,1 da.

Langabeziaren funtzioan prestazio guztien %8,4 erabili zen 2004an, eta erregistratutako langabe bakoitzarekin 11.483 euro erabili ziren, hots, aurreko ekitaldian baino %6,2 gehiago.

Gizarte-bazterketaren funtzioan urteko hazkunde handia izan zen, %21,1ekoa hain zuzen ere, eta 2004an 231,4 milioi eurotara iritsi zen.

Etxebizitzaren funtzioaren harira, 2004an 23,5 milioi euro erabili ziren. Kontuan izan behar da Gizarte Babesaren Estatistika Bateratuen Sistema Europarraren (GBABESE) metodologiaren baitan etxebizitzaren arloko prestaziotzat Euskadiko administrazioetan etxebizitza-programetan egindako gastuen %10 baino gutxiago zenbatzen direla etxebizitzako gizarte-prestaziotzat.

Gizarte-prestazioetan gastua duten **erakunde-unitateei** dagokienez, eskumena duten administrazio publikoek egiten duten gizarte-prestazioetako gastuaren %68 Gizarte Segurantzako Sistemari eta Estatuaren Administrazioari egiten da. 2004an 6.200 euroko gastua egon zen, aurreko urtean baino %7,1 gehiago. Gizarte-prestazioetako eskumenen gainerako %32 Euskadiko Administrazioek hartu dute bere gain eta 2004an %8,2 gehiago izan zen.

1. taula: Gastua, erakunde-unitate taldearen eta urtearen arabera (milaka €). 2003-2004

	2003	2004	Aldakuntza-tasa % 2004 / 2003
Gizarte Segurantzaren sistema eta Estatuako administrazioa	5.787.040	6.200.031	7,14 %
Euskal administrazioak	2.731.442	2.955.959	8,22 %
BGAE	252.587	267.492	5,90 %
Beste erakunde pribatu batzuk	676.402	699.194	3,37 %
Gizarte-babeseko gastua, guztira	9.447.471	10.122.676	7,15 %

Iturria: Eustat

Emaitza horiek eta Estatu osokoak alderatuz gero, azterketa ezberdinak egin daitezke. Alde batetik, Euskal AEko biztanle bakoitzeko gizarte-prestazioetan egindako gastua, guztira, Estatuan egindakoa baino %9 handiagoa izan zen 1995ean. 2004. urtean, oster, %22 handiagoa izatera iritsi zen. Bestalde, gizarte-babesean egindako ahalegina 2004ko BPGarekiko proportzioan neurtuta, Euskal AEn biztanleen gizarte-babeserako gastua %18,9koa izan zen guztira. Estatuan, aldiz, gastu hori %19,5ekoa izan zen.

Ahalegin hori Europar Batasuna-15ekoarekin alderatuz gero (hori da eskuragarri dugun azken datua), biztanle bakoitzeko gastuan Europako mailara hurbiltzen ari garela ikusiko dugu: 1995ean, Euskal AEn adierazle hori Batasunaren batez bestekoaren %65 edo pixka bat goragokoa zen. 2004an, balio horrek %75a gainditu zuen; beraz, hamar urtean ehuneko hamar puntuko aldea murriztu zen.

OHAR METODOLOGIKOA:

Gizarte-babesaren kontuari buruzko informazio gehiago lortzeko, sartu ohar metodologikoan:

www.eustat.es/document/datos/Nota%20met_SEEPROS03_e.pdf

2. taula: Euskal AEko gizarte-babesaren datu eta adierazle garrantzitsuenak. 1995-2005(A).

	Aldakuntza-tasa %				
	2003	2004	2005(a)	2004 / 2003	2005(a) / 2004
GIZARTE-BABESEKO GASTUA, GUZTIRA					
mila eurotan	9.447.471	10.122.676	10.884.553	7,1	7,5
Merkatu prezioko BPGaren %an	19,06	18,87	18,91	-0,18 p.p(*)	0,04 p.p(*)
Eurotan, biztanleko	4.508	4.813	5.156	6,8	7,1
FUNTZIOEN ARABERAKO GIZARTE- PRESTAZIOETAKO GASTUA (mila eurotan)					
GUZTIRA	9.238.354	9.901.001	10.646.194	7,2	7,5
Gaixotasuna / Osasun-laguntza	2.764.502	2.976.577	:	7,7	:
Baliaezintasuna	698.997	737.979	:	5,6	:
Zahartasuna	4.302.065	4.605.381	:	7,1	:
Bizirik irautea	302.852	327.883	:	8,3	:
Familia / Seme-alabak	156.291	168.083	:	7,5	:
Langabezia	796.421	830.231	:	4,2	:
Etxebizitza	26.101	23.486	:	-10,0	:
Gizarte-bazterketa	191.125	231.381	:	21,1	:
ADIERAZLEAK (eurotan)					
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanle bakoitzeko	4.408	4.708	5.044	6,8	7,1
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanle bakoitzeko eta EAPn	5.024	5.309	5.592	5,7	5,3
"Gaixotasun / osasun-laguntzaren" funtzioan egindako gastua, biztanle bakoitzeko	1.319	1.415	:	7,3	:
"Zahartasunaren" funtzioan egindako gastua, 65 urteko edo gehiagoko pertsona bakoitzeko	11.243	11.949	:	6,3	:
"Langabeziaren" funtzioan egindako gastua, erregistratuta dagoen langabetu bakoitzeko	10.809	11.483	:	6,2	:
Merkatuko prezioko BPG, mila eurotan*	49.572.859	53.631.771	57.548.541	8,2	7,3
Biztanleria	2.095.598	2.103.101	2.110.854	0,4	0,4

(A) Aurrerapena

(:) Ez dago

p.p(*) Aldea, ehunekotan

Iturria: Eustat
Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose Mari Agirre

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp